



Irudibidez

Lautadak


Joanba Bergara

Denbora joan, denbora etorri, baina oroitzapenak gogoan bizi. Banekien, bai, San Donatora joan nintzeneko komeriak ez nituela erraz ahaztuko. Hala uste eta halaxe gertatu. Bapo gosalduta, goizeko hozgiroaz baliatu nahian, eguna argitu zuenerako mendirako bidean geunden. Pittinka-pittinka, geratu gabe ia, San Donato mendiaren ingurutara iritsi ginen. Ondoren, aldapari ekin genion, gora eta gora. Baita hamaika oztopo gainditu ostean, mendiari gaina hartu ere. Hura poza! Hantxe zeuden Sakaneko bazter zoragarriak gure aurrean, ageri-agerian. Hori bai haize garbia arnastu eta indarrak berritzeko aukera aparta! Gero, ederki kostata, berriro altxa eta aurrera, San Donatoko zeharkaldia bait genuen guk erronka. Tipi-tapa berriro, ba, oraingoan gain hartan zehar. Laua zuen oso, eta laua du oraindik ere, nik dakidanez, San Donatok gaina. Baita zatarra ere. Eta hori nahikoa ez zela, gogotik berotzen zuen uztaileko eguzki-galdak; gero eta beroago eguna aurrera joan ahalean. Orain motel-motel gindoazen, goizean ez bezala, eta askotan izan genuen geratu beharra. Itzalaren arrastorik ez. Pixkanaka indarrak ahituz joan zitzaizkigun ifernu hartan eta ura ere bai. Erdi-etzutan, nonbait, iturritxo bat bazela bagenekien. Bilatu, soin eta muin bilatu genuen, baina aurkitu ez. Nik uste etsipen gorri hartan mendia madarikatzera ere iritsi nintzela. Amaigabeko lautada hartan tontorrik ez zegoenez, zoritxarreko basamortu lau hartatik nola ongi jalgi ez genekiela, aurrera jarraitu genuen noraezean. Txiripaz izan bazen ere, aterabidea aurkitu genuen azkenean. Lizarragako ostatura iritsi ginen leher eginda. Berandu. Behar baino askoz ere beranduago. Harrez gero ez naiz hara inoiz itzuli. Zergatik? Ez dago galdetu beharrik.

* * *

Zorigaiztoko lautadaz esandakoaren harian, ikaskuntzako kurben adierazpenari lotuko natzaio segidan. Ikaskuntzaren bilakaera irudikatzen duten lerro hauen gorabeherak atentzioa emateko modukoak bait dira.

Ikaskuntz kurba zenbaitek ere noiz edo noiz lautadak (edo plateau-ak) deritzatenak izaten dituzte bereizgarri ("zenbaitek" diot, beti ez bait dira ematen). Gertatu, trebetasun zailen ikaskuntza irudikatzen dutenetan ger-



tatzen da hori batipat. Etengabe aurrera eta gora egin ostean, badirudi ikaskuntza aldi batean moteldu edo erabat geratu egiten dela. Goraka egin beharrean, geldialdia gertatzen da nonbait, aurrerapena astiro-astiro zertzen delarik. Sumagaitza ia. Are gehiago, badirudi zenbaitetan beheraka ere egiten duela. Haatik, ez uste izan ikasleak jada goia joa duenik, etenal-diaren ondoren berriro goraka egingo du eta. Nahikoa azkar gainera.

* * *

Zergatik ote lautada horiek? Zergatik hasierako gorakaldi azkarraren etena? Zeri egotzi errua? Funtsezkoa dugu auzi hori aintzakotzat hartu eta behar bezala aztertzea, ikasleek, irakasleek bezalaxe, arazoari aurre egingo badiote.

* * *

Lautadak ikaskuntzako baldintzarik garrantzitsuenetako osagai batean, motibazioan, eragin zuzen-zuzena izan dezake; ikasleen artean, besteak beste, ezinegona edota porrotaren ustea sortuz eta norbere buruarekiko konfidantza gal eraziz. Zori horretan, ikaslea bere burua ezezik irakaslea,

ikastaldea eta euskara bera ere arbuiazeraino irits daiteke. Irakasleak, aldiz, gutxienez, harritu egingo ditu gertakari ulergaitz horrek; eta beharbada, baita ikasleen arazoak areagotzera eraman ere: ikaskuntzaren martxa ikasleen izaera eta gorabeheri ahalik eta justuen egokitu beharrean, iruzkin eta estrategia desegokien bidez ikaslea minduz.

* * *

Motibaziorik ezak, berau ahultzeak bezalaxe, eragin gaitza du ezbairik gabe ikaskuntzako lautaden sorreran. Baita adimenak ere.

* * *

Adimenak baditu bere mugak informazioa prozesatu eta ezagutzak bereganatzekoan, eta aztertu egin behar dira ikaskuntzako lautadak argitzeko. Dirudienez, muga horien ildotik, lautadara iritsitakoan ezagutzak berrantolatatu egiten dira, isil-isilik berrantolatatu ere. Prozesu hau berez da korapilotsua, eta nahaspilak, hutsak eta okerrak ditu ezaugarri. Lehen ustez primeran ikasitakoa, zenbaitetan ustel. Ahaleginaren ahaleginez eraikitako adimen-egiturak erorita orain.

* * *

Hizkuntzaren ikaskuntz prozesua ez da lineala, ezta metagarria ere. Zerbait azaldu eta praktikatu delako, besterik gabe, aurrez ikasitakoari erantsi eta irmoki itsatsiko zaiola pentsatzea ere! Hizkuntzaz jabetzea ez da hain erraza.

* * *

Ikasleak gauzak ahaztu egiten ditu. Bestalde, maiz askotan item berrien aurkezpenak eduki hauek aurrez azaldu eta ikasitakoekin erkatzera darama ikaslea. Halabeharrez eraman ere, hizkuntza sistema hierarkiko guztiz konplexua bait da. Konplexuak benetan sistemaren osagaien arteko harremanak. Ez linealak. Horrexegatik, hain zuzen, elementu berriekin topo egitean sistemaren osagai guztiek elkarrekin norabide bakar baten bidetik ez jokatu izanak sistema osoaren berrantolaketa dakar.

* * *

Ikasleak ikaskuntzan aurreratu ahalean, ikasiberri dituen hitz/egiturek beste zenbait testuingurutan ditzuten esanahi edo ñabardura berriak ikasiko ditu. Beraz, hizkuntz elementua lehengoa bera bada ere, lehen ikasi ez den bezala erabiltzen ikasiko du edo beste esanahi bat ere baduela. Batzuetan ez da hortik inolako eragozpenik sortuko; bestetan, aldiz, "kontraesanak" azalduko dira eta ordurarte ikasitako itemaren esanahiak eta erabilerak (noiz erabili eta noiz ez) berriro aztertu beharrean aurkituko da ikaslea. Beste zenbait kasutan kontzeptu jakin bat azaltzeko eskura dauden era ezberdinak eta berauen jitea izango ditu aztergai. Eta berriro ere arazoak agian. Eta zer esan morfologiak eta sintaxiak sortzen dizkiotenei buruz?

Nola ez du ba ikasleak korapiloak askatu nahian hutsik egingo? Zenbaitetan, gainean duen zama handiegia izaki, gauzak erraztera joko du; bestetan, bereganatutako arauak gehiegi zabaltzeagatik, testuinguru desegokitan erabiliko ditu; eta (ikaskuntza zertzen ari den isla) bereganatutako arauak, maiz askotan, lehen ondo "ikasitako" gauzetan ere huts egitera eramango dute.

* * *

Ikasleak berezkoa du lautada hizkuntz edukiak korapilagotzen doazen neurrian. Denboraldi luzeak beharko ditu berriki azaldutako hizkuntz atalak behar bezala barneratu eta elkarrekin tolesteko. Egosketaldi baten ondoren bakarrik hasiko da kanporatu eta egoki erabiltzen. Baina helmuga horretarako bidean gorabeherak izango ditu hizkuntz zuzentasunari dagokionez. Denboraren poderioz bakarrik etorriko dira gauzak bere onera.

* * *

Aspertzeko moduan eginahalean saiatzea ez da sendabide ona, gauzak behartzeak, edonola egiten delarik ere, berezko barneratze-prozesua oztopa dezake eta. Ikasleen hutsak ez daitezela arazo kezkarriegi bilakatu. Gogoan hartu hutsen zuzenketak berak bakarrik ez duela ezertarako balio zenbaitetan; hutsa zuzendua izango bada, hizkuntz berrantolaketa burutu behar du ikasleak; eta hori ez da bat-batean gertatuko ziur asko. Lasai egon! Irakaslearen urduritasunak ez dezala ikaslearena areagotu. Irakastea margotzea bezala da: kapa bat eman eta lehortzen utzi pixka batean, gero bigarrena eman, hirugarrena... Programazioa prestatzerakoan, edukiak denboraldi batean behin eta berriz, era batean eta bestean, azaldu edota erabiltzeko moduan moldatu beharko genituzke lanak, ikaslea pixkanaka horietara jar dadin. Bestalde, ez ahaztu landutako elementuak berriz ere geroan aintzakotzat ez hartzeak duen arriskua: berauek ahaztekoa, alegia.

* * *

Eskuratzeko moduko helburuak hautatu behar dira beti, ikasleak ere hori bera egitea nahi badugu behintzat. Oso garrantzizkoa da ikasleak, irakasleak lagunduta, bere trebetasun *metakognitiboak* garatzea ere: hizkuntz irakaskuntzaren eta euskararen beraren jitea eta ikasleak berez dituen ezau-garri eta ikasestrategiak ondo ezagutzea, alegia. Era berean, estrategia *kognitibo* anitzekin aprobak egiteko egokiera eman behar zaio ikasleari, ondo ezagututa gero bere ahalmen kognitiboei hobekien egokitzen zaizkienak bere egiteko.

* * *

Horrela bakarrik mantenduko du bizirik aldapetan gora eta lautadetan barrena aurrera jotzeko grina. Orduan, krisialdiek ez dute ezustean harapatuko. Jakingo bait du euskara hain konplexua izanik, eskuartean duen lana gaitza dela, ez nolana hikoia.

Jakingo bait du ezina dela jatorrizko hiztunaren mailara edo hor nonbaite-
ra iristea gelako hormen artean eta euskaltegian matrikulatuta dagoen
bitartean. Jakingo bait du oso zaila dela jatorrizko hiztunaren maila lor-
tzea, ezinezkoa ia, eta horrexegatik, hain zuzen ere, heldu askoren kasuan
euskararen norberegantzea fosilizatu egiten dela jatorrizko hiztunaren
antzeko mailara hurbiltzeko bidean.

Horrela bakarrik ulertu eta barkatuko dizkio bere buruari egiten dituen
hankasartzeak. Horrela bakarrik ez du amore emango, lautadako eguzki-
-galdatan, erretako bizkarra ondo minduagatik. Horrela bakarrik jakingo
bait du lautadetara iritsitakoan metodoz aldatzea komeni zaiola, edota den-
boraldi batean arazoak alde batera uztea, edota ondo merezitako atsedena
hartzea.

* * *

Baina, badaezpada ere, hobe ikaslearen motibazioaren gorabeherei gertutik
eta etengabe erreparatzea, baita honetan eragin zuzena izan dezakeen guz-
tia gogoan edukitzea ere. Zenbait lautada erosoak bait dira zeharo. Beste
batzuk, aitzitik, gogaikarri baino gogaikarriagoak. San Donato gainekoa
eta hizkuntzen ikaskuntzakoa, kasu.